

# FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektu aurrera eraman ahal izateko hainbat elementu beharko ditugu. Gehienbat behar izan ditugun elementuak Baliabide Fisikoak dira. Multzo honen barruan, web sarea bat beharko dugu eta baita leku bat arropak bezeroentzat pertsonalizatzeko.

Ondoren, baliabide intelektualean sartzen den elementu bat ere behar izango dugu. Kasu honetan, bezeroen datu base bat izango dugu haien erosketak ikusi ahal izateko eta baita ere zer nolako arropak gustatzen zaizkien jakitzeko. Horrela, gure web sarera sartzen direnean beste arropa bat ikusteko, guk badakigu zer nolako arropak eskeini hasierako orrialdeetan.

Bestalde finantza baliabidea izan behar dugu ordainketak interneten bidez egiterakoan gure bankuko kontu korrentera heldu dadin. Hau da kreditu linea bat izan beharko dugu, proiektu honetan lan egiten dugun langileei soldatak ordaintzeko edo beste zerbaiterako erabili dezakegu kreditu linea hau.

Azkenik, baina agian elementurik garrantzitsuena, proiektu honetan parte hartzen dugun pertsonen gogo handiak eta esperientzia edo erronka berriak izateko gogoak izatea da proiektu hau aurrera joan dadin elementu oso garrantzitsua da.

